

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen: Nota:

zolape	Eskuak zamarraren sakeletan, harrixka zolapean jiraraziz, egokia iruditu zaion gune bateraino eraman du, putzu batetik metro erdiren batera.
kurritu	Ikus eremua mutur batetik bestera kurritzen dute itzalek.
galgatu	Txoferra galgatu ez galgatu ibili da instant batez, baina kamioia bere paretik pasatzean, zakurrak apur bat mugitu du burua, soraio.
hits	Begiak erdi itxita parabisako orban eta tanta artetik datorkion argi hitsak zeru izoztu baten puskak dakarzkio.
tua	Tua irenstean nabarmen mugitu da txoferraren zintzur irtena.
arkupe	Plaza nagusira iritsitakoan arkupe argituari beha egon da.
azantza	Barreneko azantza dela-eta inor ez da ohartu Martinen etorreraz.
jori	Ura jori bota du begi minberatuan.
ile xerlo	Atzetik jotzen duen haizea medio, aurreko aldeko ile xerloak kopetan eta betazaletan sumatu ditu burua jaistean...
dirdaitsu	Aparkaleku zabaleko asfalto beltz bustitik eguzki izpi dirdaitsuak iristen zaizkie.
urruma	Hotzak dira mortutik datozkien boladak, hotza lumadi harrotuaren azpiko urruma .
hazta egin	Kamioipean ahoz goiti, hango argiaren urriak hazta egitera behartu du Martin.
afaltiar	Jangelan dozena erdi bat afaltiar dago mahai banatan, horietako batzuk hondoko horman ezarria duten telebisioari beha.
eskorta	Sarrerako eskorta erorien teiletan lainoaren distira bustia ageri da oraindik...
ñirñirkari	Martinek sudur luze bat eta bi begi ñirñirkari , besterik ez du ikusi gizonaren aurpegian...
kopeta	Martinek esku gainaz baztertu ditu kopeta ukitzen dioten ile bustiak.
karraskots	...eta seguru aski oinek elurra zapaltzean ateratzen duten karraskotsa hartu duela gidari gisa.
maindire	Elur maindire zapaldu gabeen bi oinatz ilara paralelo eratu dira.
oinatz	Elur maindire zapaldu gabeen bi oinatz ilara paralelo eratu dira.
arasa	Martinek, besoak antxumatuta, arasa baten gainean dauden familia argazkiak behatu ditu.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

dir dai	... dir daiak ateratzen baitira nonahitik: komodako bernizetik, ispilutik, baxeratik, argazkien kristaletik eta markotik.
lipar	Elurpean hormatuta behar duten arren, lipar batez aditu duen usain gozoa ez kai izoztuena dela esanen luke.
ez kai	Elurpean hormatuta behar duten arren, lipar batez aditu duen usain gozoa ez kai izoztuena dela esanen luke.
istape	...bulegoan zain egonen dela esan eta errepidea zeharkatu du istape labur eta biziak eginez.
lurmen	...ia hodeiertzean zatika lurmen dauden mendietako egurats urdinkaran.
etxabe	...eta ahal bezain laster etxabeen aldera baztertu, gelditu eta hogeita hamar bat metrora duen beste aldeko espaloia aztertu du.
ezkila	Behin jo du eliz-dorreko ezkilak .
eskudel	Metalezko eskudel herdoildu bat bukatutakoan atera da asfaltotik eta belar gaiztoz betetako pendizean behera jaitsi da saihesbideraino.
loki	Esku bustiekin igurtzi ditu aurpegia, lokiak eta garondoa.
lustratu	Putzuan zero dardarati bat, eta gizonaren zapata lustratuen larruan arratseko isla ilunak.
ezponda	Irteerako bihurguneko ezpondetan ez da belar izpirik hazi eta autopistan egindako lanen hondarrak ageri dira han-hemenka...
soildu	Bazterrak soildu diren neurrian agertu dira eraikin berriak.
txatartegi	Txatartegi batean auto zaharren leihatilek zero zatiak erakutsi dizkiete, guztiak diferentek.
iratzarri	Izena, errepikatu du, iratzarri berriaren ahotsaz.
kliskatu	Gero kliskatu egin du zakarra oraindik han dagoen ala ez egiaztatzeko.
imintzio	Taxistak solasean jarraitzeko imintzioa egin du, eta Martin mantso urrundu da, karrika artean, eskuak polarraren sakeletan.
karrika	Taxistak solasean jarraitzeko imintzioa egin du, eta Martin mantso urrundu da, karrika artean, eskuak polarraren sakeletan.
ordainagiri	Haize heze bortitzak ordainagiria astindu du, eta sakelan sartu aurretik paperak dar-dar egin du Martinen eskuan.
zafraldi	Ibiliari ekitean biziki eskertu ditu haizearen zafraldiak , taxian nozitu behar izan duen aire-lurrintzailearen eragin zorabiagarria ahanzten lagundu baitiote.
porlan	...ilean eta besoetan geratuak zaizkion porlan hautsaren hondarrak eskuekin kentzen ahalegindu du.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

amildu	Gero nora ezak gidatua dirudien norabidea hartuta, banaka amildu dira ibar idor baten hostaila bakanduan.
hostaila	Gero nora ezak gidatua dirudien norabidea hartuta, banaka amildu dira ibar idor baten hostaila bakanduan.
uberka	...bertaratu eta zubi estuen eta uberka idorren gainetik igotzean, Martini bihotz huts bat zulatzen zuela begitantzen zitzaion.
mehar	Azken bihurguneak ibar txiki batera eraman du, alde batean haitzak, bestean ibaia, eta aurrez aurre arroilaren sarrera meharra .
naba	Mendi hegaletan gaindi datorren zehar haizeak bala izoztuak jaurtitzen ditu naba zabalean.
irmo	Mutilak pagatzeko keinua egin du, baina kamioizalearen keinu irmoak ez dio utzi.
hurrupa	Donarioz gozatu ditu koilarakada bakoitza eta hondarreko hurrupa beroak.
arestiko	Pausaldi labur bat egin du eta, berriz abian jarrita, arestiko buru bihurtzeak errepikatu ditu hitzak hobetu helaraztearren.
hasperen	...eta barre egin du, eta jarraian hasperen —.
norbera	—Zuk ere ez duzu bataiokoa bakarrik... Badakizu, izen konkretuetan ez du norberak agintzen...
poto	Eltzea eta potoa ondoko eserlekuan jarri ditu.
iratzarri	Saiheska jarrita dago iratzartzean , begiak moketa higatuko marrazkietatik zentimetro gutxira.
aldamen	Ordenagailu aurrean dagoen neskari aski zaizkio perfumearen eta zigarro erre berriaren usainak aldamenera etorri zaiona nor den jakiteko.
apaldu	Ate aldera jotzeko zutitu da, burua apur bat apalduta sarreran dauden bi lankideen begirada saihestearren.
zabu	Neskaren itzal txikiak zabu arinak egin ditu eguzkipean, gero, ezarian, argiaren muga zeharkatu du etxeen itzalarekin bat egin arte.
hazta eginda	Nekez saihestu du aizkora iltzatu eta besoak hazta eginda zain geratzeko bulkada...
antxumatu	Amak besoak antxumatu ditu.
lorratz	Ibilgailuen soinu lorratz urruna aditu du handik alden du eta berriz ilunpera egin ahala.
osin	Gero, atea ireki eta gauaren osinera jaurti du bere aurpegiaren isla margula.
orban	...eguzki sartzen hasi berriaren gorriaz gain orban irisatuak ageri baitira gainaldean.

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen: Nota:

irisatu	...eguzki sartzen hasi berriaren gorriaz gain orban irisatuak ageri baitira gainaldean.
isla	Putzuan zeru dardarti bat, eta gizonaren zapata lustratuen larruan arratseko isla ilunak.
berantetsi	Inguru hartako joan-etorriak aztertutakoan soinu berantetsi bat atera du mingainaz.
ñimiño	Zerumugaren gorritik lurraren beltzera jaitsi du begiratua, itzal ñimiñoen ilara bat topatu arte.
zerumuga	Zerumugaren gorritik lurraren beltzera jaitsi du begiratua, itzal ñimiñoen ilara bat topatu arte.
ostendu	Gizonak errepide ostenduan gailentzen den bat hautatu du.
gailendu	Gizonak errepide ostenduan gailentzen den bat hautatu du.
lekutu	Autobusa, kontrako norabidean doazen bere antzeko beste pare bat gurutzatuta eskuin aldetik lekutu da...
burrunba	Itzal mutuen errenkadatik hesirainoko bidea egindakoa begiak kliskatu ditu gizonak. Burrunba batek bultzatu du atzean duenaz arduratzera.
urrunxko	Urrunxko dagoen arren, segundo batzuen buruan gizonak sentitu du haize astinaldi leunek aurpegia eta ilea laztantzen dizkiotela.
arre	...txistua gasolindegia inguratzen duen mortu arreko airean galdu da.
mortu	...txistua gasolindegia inguratzen duen mortu arreko airean galdu da.
horien ezean	Horien ezean eta ohartuta gasolindegiko eraikin nagusian berarentzat ez dela berririk...
legar	Esku ahurrekin lurreko legar hondarrak bildu ondoren elkarren kontra igurtzi ditu koipe orbanen handiena garbitzearren.
hauteman	...trailer bat hauteman du aparkalekuaren buruan zeharka geldituta.
buruan	...trailer bat hauteman du aparkalekuaren buruan zeharka geldituta.
olana	Ezker aldean bi aldiz igo behar izan du olana eta loturak finkatzeko...
antzeman	...muskuluak pixkanaka luzatzen eta bere onera itzultzen hasi zaizkiola antzeman du berehala.
ordeka	Gogoia ematen du autopistako hesi amaiezinak zeharkatu eta argiak iraun arte ordeka hutsean ibiltzeko.
gogaitu	...ez luke gogaitu nahi, ordea, itxura batean matxuraren bat konpontzen edo zer edo zer errebisatzen ari den hori.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

beha	Jangelan dozena erdi bat afaltiar dago mahai banatan, horietako batzuk hondoko horman ezarria duten telebisioari beha .
pendiz	Metalezko eskudel herdoildu bat bukatutakoan atera da asfaltotik eta belar gaiztoz betetako pendizean behera jaitsi da saihesbideraino.
hormatu	Elurpean hormatuta behar duten arren, lipar batez aditu duen usain gozoa ezkai izoztuena dela esanen luke.
soraio	Txoferra galgatu ez galgatu ibili da instant batez, baina kamioia bere paretik pasatzean, zakurrak apur bat mugitu du burua, soraio .
bulkada	Nekez saihestu du aizkora iltzatu eta besoak hazta eginda zain geratzeko bulkada ...
donario	Donarioz gozatu ditu koilarakada bakoitza eta hondarreko hurrupa beroak.
minberatu	Ura jori bota du begi minberatuan .
hodeiertz	...ia hodeiertzean zatika lurmen dauden mendietako egurats urdinkaran.
urdinkara	...ia hodeiertzean zatika lurmen dauden mendietako egurats urdinkaran .
lumadi	Hotzak dira mortutik datozkien boladak, hotza lumadi harrotuaren azpiko urruma.
harrotua	Hotzak dira mortutik datozkien boladak, hotza lumadi harrotuaren azpiko urruma.
begitandu	...bertaratu eta zubi estuen eta uberka idorren gainetik igotzean, Martini bihotz huts bat zulatzen zuela begitantzen zitzaion.
arroila	Azken bihurguneak ibar txiki batera eraman du, alde batean haitzak, bestean ibaia, eta aurrez aurre arroilaren sarrera meharra.
klaska	...ez dira aditzen zurek, metalek eta plastikoez hoztean ateratzen dituzten klaskak eta kirrinkak.
kirrinka	...ez dira aditzen zurek, metalek eta plastikoez hoztean ateratzen dituzten klaskak eta kirrinkak .
doi bat	Oin bat lurretik doi bat bereizita, gorputza alde batera luzatu du angelu egokia bilatzeko.
zanpatuta	Gizon bat da kabinapean dagoena, eta soin-enborrharen erdia gurpilak zanpatuta dauka.
kirats	Kirats sarkor bat iritsi zaio bat-batean, ezin jakin nondik.
gorape	Gasolindegiko gorapetik metro gutxira heldu da gizona, ito beharrean.
ito beharrean	Gasolindegiko gorapetik metro gutxira heldu da gizona, ito beharrean .

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

ebaki	Gizonak hitzen bat ebakitzea lortuko duela dirudien unean gasolindegiko komunetik datorren emakume bat gurutzatu zaio...
zabuka	Gizona bi langileen atzetik atera da, oso mantso eta zabuka , ilunabarreko argiaren zama gainean duela.
nabar	Errepide paraleloko zuzenaren sarreran kartel erraldoi eta nabar batek egin dio harrera.
usnan	...atzeko ispilutik ikusi du zakurra atzera egin eta poliki lanbrotzen ari den ordokiko hondakinen artean usnan .
lanbrotu	...atzeko ispilutik ikusi du zakurra atzera egin eta poliki lanbrotzen ari den ordokiko hondakinen artean usnan.
bermatu	...dozena erdi bat langile izanen dira, errepide ertzetik hurbil, bizkarra hesian bermatuta , soinean bakoitzak ekarritako jantziak orban zuriz zikinduta...
bakan	Lehen bezain bakan ari du euria.
litekeena da	...eta litekeena da hark uste izatea bera dela hala deitzen dion bakarra.
bafada	...usain gozo zehaztezin bat iritsi zaio lehenengo bafadarekin batera.
zurrusta	Xaboa kendu eta gero ere luzaro egon da bizkarra ur zurrustaren azpian jarrita.
bizarra egin	Lababoen ondoan daude sartzean entzun dituen bi haiek ere, gerritik gora biluzik eta bizarra egiten .
argidura	Haien gainean eguzki zuri baten argidura apala.
ireki orduko	Bere kamioiko atea ireki orduko zabal-zabalik uztea erabaki du barrena egurastu dadin.
egurastu	Bere kamioiko atea ireki orduko zabal-zabalik uztea erabaki du barrena egurastu dadin.
jaulki	—Zer? —eta ia oihu bihurtuta jaulki zaio galdera.
zirkin	...gizon iritsi berriak ezin izan du nahigabe zirkina ezkutatu.
bere barnean bildua	Luze gabe bere barnean bildua dirudi, eta Vasilek pixka bat goratu du diskoaren bolumena.
arrakala	Vasilek ordokiko arrakalei eta erreka lehorren bazterrei erreparatu die.
erreparatu	Vasilek ordokiko arrakalei eta erreka lehorren bazterrei erreparatu die.
makal	...erreka lehorren bazterrei erreparatu die. Haietan hazten diren makal ilara bakanak etzaten ikustean ohartu da haizearen bortitzez.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

zirimola**Zirimola** eta sastraka hondarrak ere begiztatu dituzte ordokian barrena jiraka.**gaztigatu**—Hi ere kontuz ibili —**gaztigatu** du Vasilek, eta irribarre egin du.**kuzkurtu**Gizonak burua **kuzkurtu** du angelu egoki bat hartu eta zerua parabrisan barrena aztertzeke.**parabrisa**Gizonak burua kuzkurtu du angelu egoki bat hartu eta zerua **parabrisan** barrena aztertzeke.**lugorri**Begiekin hartzen duten eremu osoan apenas dagoen **lugorriarik** eta berde sortu berri eta dardarti batekin estaltzen du sailen azal hori marguldua.**margul**Begiekin hartzen duten eremu osoan apenas dagoen lugorriarik eta berde sortu berri eta dardarati batekin estaltzen du sailen azal hori **marguldua**.**lo kamuts**Ia ohartzina da, baina burua oso poliki hasi zaio makurtzen, **lo kamutsean**.**mika**Ezpandan **mika** bakan batzuk, ertzean tinko ibilgailuak ondotik igaro arte.**okume**Ibaiko sailen artean bidoi eta **okume** zaflez egindako etxolak ageri dira; letra zatiak eta marka ezagunen ikurrak eta kolore konbinazioak dituzte txataletan.**txatal**Ibaiko sailen artean bidoi eta okume zaflez egindako etxolak ageri dira; letra zatiak eta marka ezagunen ikurrak eta kolore konbinazioak dituzte **txataletan**.**piltzar**...baratzetako ziri erdi eroriak eta haietatik zintzilik dauden zurtoin zati idortuak, arropa **piltzarrak** eta plastikoak.**ziri**...baratzetako **ziri** erdi eroriak eta haietatik zintzilik dauden zurtoin zati idortuak, arropa piltzarrak eta plastikoak**orbel**...orri batzuk iritsi dira espaloi arrailduaren ertzeraino eta han bildutako **orbelarekin** nahasi dira.**arraildu**...orri batzuk iritsi dira espaloi **arrailduaren** ertzeraino eta han bildutako orbelarekin nahasi dira.**nontsu**Hiriak **nontsu** behar duen taxututa kalearen burura jo du bizi-bizi.**taxutu**Hiriak nontsu behar duen **taxututa** kalearen burura jo du bizi-bizi.**hotsetik ekarri**Martinek burua makurtu eta begiak itxi ditu. **Hotsetik ekarri** du noiz ireki ditzakeen berriro.**hasperendu**— Alhamara? —dio, eta izenaren hatxea **hasperendu** du errepikatzean.**ilaun**Adar soilduen artean zeru ahituaren izpi hondarrak daude, moreak eta **ilaunak**.**ahitu**Adar soilduen artean zeru **ahituaren** izpi hondarrak daude, moreak eta ilaunak.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

sigi-saga**Sigi-saga** jaitsi da, tentuz, lur zerrenda soildu eta argiagotik atera gabe.**gakotu**...lohiaren eta ur **gakotuaren** artean usteldu diren hostoen eta landareen bafadak aditzen dituela tarteka.**aldiri**Argiteriari erreparatuz gero aise bereiz daitezke hirigunea eta **aldiriak**., auzo zaharrak eta berriak.**paldo**Porlanezko hiru **paldok** eragozten dute ibilgailuen igarotzea.**parterre**Harresi parean lorategi tankerako bat moldatu dute eta kapitela eta zutabe hondarrak daude **parterreetan**.**hazita**Kamareroak egin dion begiratuagatik konturatu da Martin begia **hazita** edo gorrituta behar duela.**oraindik orain**Kamareroak arrazoi zuen, leku garbia eta **oraindik orain** berritua dirudi.**kakorratz**Erretratu ugari dago hormetan eta **kakorratzez** egindako mahai-tapizen gainean.**errenditu**...ohean etzan eta begiak bilduta egon da pixka batean, harik eta bere arnasa **errenditutik** loaren atarian dagoela ohartu den arte.**lits**Galtza barrenetako **litsei** tira egiten jardun du bitartean.**galtza barrenak****Galtza barrenetako** litsei tira egiten jardun du bitartean.**berriketan**Bi taxista daude lehenengo taxian bermatuta, **berriketan**.**herabez**Martinek baiezkoa egin du, eta tren ordutegiez galdetu die **herabez**.**soropil**

Belardi estu eta luze bat gurutzatu du parke baten sarrerako soropila zapaldu aurretik.

makulu—Etzazula uste, leku polita da —eta **makulua** goratu eta ilunpea seinatu du—.**palasta**...haizearen eta uraren hotsaren gainetik, soinuak harrapatzen saiatu da: **palasta** bat, uharteko txorien hegadak, presa bateko ur-jauziaren zurrumurrua...**hatz mami**Itxura batean deus ez zuen sakelatik zulo bat agerrarazi du atera eta sartu dabilen **hatz mamiak**.**parapeto**...kristalean garbi ageri da gizonaren aurpegia, eta ama gazteak badaki kezkarik gabe begiratzeko ez dagoela **parapeto** hoberik.**errezel**Ama gaztearen adats beltzaranak burua makurtzean hauraren aurpegia estali du **errezel** txiki batek bezala.**ñarrotu**Geltokiko estalpetik irten orduko egun argiak hartu du bagoia. Gizonak begiak **ñarrotu** ditu une batez.

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen: Nota:

begietsi	...gasolindegitik ehunen bat metrora gelditu denean, ilearen dantzak inguru hartakoa lasai begiestea eragotzi dio.
eragotzi	...gasolindegitik ehunen bat metrora gelditu denean, ilearen dantzak inguru hartakoa lasai begiestea eragotzi dio.
huntz	Akaziak daude bakan, huntzak tarteka estaliak dituen hesitik metro gutxira.
mukuru	Hesiaren arteken bestaldean, ordokiko gainerako lurra baino ilunago, landa zabaletako ildo goldatu berriak eta mukuru amaigabeak.
arteka	Hesiaren arteken bestaldean, ordokiko gainerako lurra baino ilunago, landa zabaletako ildo goldatu berriak eta mukuru amaigabeak.
goldatu	Hesiaren arteken bestaldean, ordokiko gainerako lurra baino ilunago, landa zabaletako ildo goldatu berriak eta mukuru amaigabeak.
estutua	Neskak ez dio bukatzen utzi. Estutua dirudi bat-batean.
damu izan	Langilearen eztarritik atera den soinua entzundakoan ia damu da Martin, soinu horrek galdera argi bat baitauka: adarra jotzen ala?
albaran	...karpetako paper gehienak gainetik irakurri ondoren, albaran itxurako paper sorta hori bat atera du...
zeudenean utzi	Zeudenean utzi ditu berehala eta altxamahai gaineko errepide mapa eskuztatua hartzera egin du.
altxamahai	Zeudenean utzi ditu berehala eta altxamahai gaineko errepide mapa eskuztatua hartzera egin du.
eskuztatu	Zeudenean utzi ditu berehala eta altxamahai gaineko errepide mapa eskuztatua hartzera egin du.
takografo	Apur batean bila ibili ondoren eskularruen kutxatik atera ditu takografoko diskoak.
paratu	Erlojua kontsultatuta disko berri bat hartu eta zenbait datu idatzi eta gero takografoan paratu du.
histu	Parabrisan eroritako euriak nabarmen histu du kabinan sartzen den argia.
zinbalo	Eskua metalezko eskudelean bermatzean ezkontza eratzunak zinbalo gisako akorde luzea eragin du.
laketu	—Eta hi laketzen al haiz autobusean?
atzendu	Atzendu egiten zaik jendearekin nola ibili behar den. Batak hau behar duela, besteak bestea...
atxiki	Gidariak bere puruari azken atxikia egin eta tua bota du trailer azpian.
marraskatu	Asfaltoaren bestaldeko muino marraskatuan gorri bizia da lurraren tonua...

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

aratz	Aire aratzean barrena uso saldo bat dabil hegan, transformadore etxola erori baten inguruan.
saldo	Aire aratzean barrena uso saldo bat dabil hegan, transformadore etxola erori baten inguruan.
ahur	Esku ahurrekin lurreko legar hondarrak bildu ondoren elkarren kontra igurtzi ditu koipe orbanen handiena garbitzearren.
garmin	Motorra piztu orduko garmin eta izerdi kirats bizia aditu du Martinek.
bizi	Motorra piztu orduko garmin eta izerdi kirats bizia aditu du Martinek.
larri ibili	Aurten, ordea, ez gaituzte hartu. Iaz ere larri ibili ginen. Portugesak eta marokoarrak etortzearekin lehengo martxa lehertu zen. Horrela dago afera.
afera	Aurten, ordea, ez gaituzte hartu. Iaz ere larri ibili ginen. Portugesak eta marokoarrak etortzearekin lehengo martxa lehertu zen. Horrela dago afera .
ilunbista	Ilunbistak ekar ditzakeen arriskuez ohartuta kamioiaren argiak piztu ditu.
baldar	...poltsa saihetsean dantzan eta burua makurtuta kokotsa ia bularraren kontra jarri arte, baldar jo du aurrera...
irri ajataka	Gizonak erdi itzalean utzia duten jeep baten parean gelditu dira irri ajataka .
tirriki-tarraka	...eserita geratzeko eskatu dio andreari, bera arduratuko dela edariaz, eta tirriki-tarraka hurbildu da mostradoreraino.
gandu	Ihes punturako bidean aurrera egin ahala trinkotzen da gandua ...
bistak eraman ahalean	Bistak eraman ahalean arrea zen lurra eta [...] muga haietan ibarretako lerro beltzak nabarmentzen ziren.
amaraun	Ia goiz osoa eman du Martinek [...] bide ugarien amaraunean aurrera egin nahian.
ostertz	Laster, maldan behera ekitean konturatu da lekutua dela ordura arte ostertzean izan duen mendi katea.
soliba	...erota erori baten teilak, zutabeak eta solibak begiztatu ditu sastraka soilduak itota.
atalase	...burua altxatu eta atalasean bermatu behar izan du esku bat.
areka	...argibideak bilatu ditu: arekako ura, enbor-makurrak eta adar soilduak, ezpondako zokoa...
mataza	...elur matazak aire grisean bilduta datoz, eta erauntsiaren bortitzak mataza bakar bihurtu ditu Martinen begietan.
hemen dela hemen!	Begiratu labur bat egin dio Martini eta alai oihukatu du: — Hemen dela hemen!

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

hitz beste eginOraindik pixka batean jardun du galdera heldu ez balitzaio bezala. Gero bat-batean **hitz beste egin** du.**egin ez egin egon**Kanpora **egin ez egin egon** da pixka batean eta, azkenik [...] bulegoko atean geratzea deliberatu du...**besoak hazta egin**Kabina pareraino hurbildu eta besoak **hazta eginda** zeru beltzerantz jaso du burua.**tranpal**...Martinek mutila ikusi du goian, **tranpaleko** eskudelean, besoak antxumatuta.**gaitzitu**Hori jakitearekin **gaitzitura** dirudi Martinek eta mutilak entzuterik izan ez duen zerbait ebaki du haren ahoak.**gau min**Trailerra poliki mugitu da ilunpean, eta motorra isildutakoan atzeko argi gorriek erakutsi dute instant batez non irentsi duen **gau minak**.**goazemazu****Goazemazu**, ez da urrun, gonbidatu du mutilak.**zirtoa bota**—Kamioian ekarri diat herriraino. [...]
—**Zirtorik bota** al dizu?**derrigorrean**—Nekatuta egon behar duzu **derrigorrean**.**alda**Azken **alda**, galtza eta atorra garbiak atera ditu poltsatik.**dilin**...galtzen eta poltsaren kremaierena, gerrikoaren belarriaren eta sakelako txanponen **dilina**...**alartze**Han mantso bota du pausoa eta egongelako **alartzean** gelditu da aurrera egitera ausartu gabe.**maskor**Martinek une batez behatu ditu zangoetako eta besoetako orban txikiak [...] eskuetako **maskor** horituak...**txarrantxa**Martinek **txarrantxako** ur tantak eta haietan den argi aratza begietsi ditu.**gurgur**Elur urtzen hasi berrien **gurgurraren** azpitik ezin jakin nongo haize urrunen orroa igotzen da.**ikusbegi**Izen bakarra bete dezake une hartan: La Nava. Hartaz gain ez du beste herririk **ikusbegian**.**ospel**Behean, muinoaren **ospeleko** oihanean, hotza dago lo.**pikotxean**...eta, orduan, txoferra **pikotxean** jarri da su txikia itzaltzeko.**ezagun izan****Ezagun da** sartu berria trebea dela maniobra egiteko orduan, ongi ezagutzen duela tokia...**zaputzik gorde gabe**...Martinek begiratze hutsarekin garbi adierazi baitio nahiago duela isilik egon. Neskak **zaputzik gorde gabe** zerbitzatu dio kafea...